

GOBIERNO DE NAVARRA
PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR
ECONOMIA Y HACIENDA
RELACIONES INSTITUCIONALES Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO
ADMINISTRACION LOCAL
EDUCACION
SALUD
DESARROLLO RURAL Y MEDIO AMBIENTE
ASUNTOS SOCIALES FAMILIA JUVENTUD Y DEPORTE
CULTURA Y TURISMO
OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y COMUNICACIONES
VIVIENDA Y ORDENACION DEL TERRITORIO
INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO
SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak ia 3 milioi euro inbertitu ditu Atarrabiako Kultur Etxe eta Liburutegi berria egiteko

6 milioi euro baino gehiagoren aurrekontua izan du eta udalak eta Kultura Ministerioak ere finantzatu dute

Viernes, 25 de marzo de 2011

Kultura eta Turismoko kontseilaria, Juan Ramón Corpas, Atarrabiako Kultur Etxe eta Liburutegi berria inauguratzeko ekitaldian izan da gaur goizean. Harekin batera izan dira Peio Gurbindo herriko alkatea eta Elma Sáiz Nafarroako Gobernuko ordezkaria. Kultura sustatzeko bi gune horiek egin berri den eraikin bat partekatuko dute, 5.000 metro koadro baino gehiago dituen. Eraikin hori egiteko 2.880.268 euroko diru-laguntza eman du Nafarroako Gobernuak.



Corpas kontseilaria, Gobernuko ordezkaria, Elma Sáez, eta Atarrabiako alkatea, Peio Gurbindo, herriko kultur etxea inauguratzeko ekitaldian

Eraikin berriak 5.413 metro koadro eraiki dauzka guztira eta hauek osatzen dute: ekitaldi areto bat 299 eserleku eta minusbaliatuentzako lekua dituen, agertokia, erakusketa gela, bulegoak, erabilera anitzeko eta arte eszenikoetarako gelak eta biltegiak; liburutegian irakurtzeko 91 leku daude, horietatik 61 helduentzat eta 30 ume eta gazteentzat, horiez gain 9 ordenagailu egongo dira jendeak erabiltzeko. Liburutegi berriak 22.000 agiri gordetzeko lekua izango du, gaur egungoa baino 4.000 gehiago.

ACR enpresak egin duen proiektuaren aurrekontua 6 milioi euro baino gehiago izan da. Esan bezala, kopuru horretatik 2.880.268 euro eman ditu Nafarroako Gobernuak, hau da, aurrekontu osoaren % 46. Bestalde, Atarrabiako udalak 2.105.216 euroko laguntza eman ditu. Kultura Ministerioak ere 1.000.000 euroren diru-laguntza eman du. 2009an 200.000 euroko zenbatekoa lortu zen PSNren zuzenketa bati esker.

Gaur egun Nafarroan 43 kultur etxe eta 17 zentro soziokultural daude guztira.



Eraikinaren irudia